

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Jerusalem, hiri kolonial gisa planifikatua

Eyal Weizman arkitekto juduak urteotan aztertu eta azaldu du Israelek Palestinan daraman plangintza koloniala. Plazaratu berri duen liburuaren atal bat Jerusalem eskaini dio: hiriburua planifikatuta dago palestinarrek alde egitea beste aukerarik eduki ez dezaten.

HIRI KOLONIAL ANITZEN MODUAN, Jerusalemek auzo ilunak dauzka biztanle natiboentzako, mugako poliziek zainduak, barrioen arteko ezusteko kontrolekin. Jerusalem bizi diren palestinarrentzako, bertan dauden juduentzako ez bezala, dena dago planifikatuta alde egin dezaten. Horrela mintzo da Eyal Weizman arkitektoa liburu berrian: *Hollow Land* tituluak (Lurralde Zulatu) hitz jokoa egiten du eskualde horri eman zaion "Holy Land" (Lurralde Sakratua) kontzeptuarekin. Bigarren titulutzat dauka *Israelen okupaziozko arkitektura*.

Eyal Weizman arkitektoa judua da eta Londresko Goldsmiths College unibersitatean ari da irakasle. Berrikitan erakusketa antolatu zuen Israelen bertan, eta bukaerako epea baino lehen itxi zioten, Palestinako okupazio urbanistikoaren irudiek eragin zuten zirrargatik. Liburuaren berri emanaz, hiri sakratuari dagokion atalaren zati bat ipini dute *Jerusalem Quarterly* aldizkari palestinarrenarean.

Weizmanek bere analisisan 1967ra arte egin du atzera. Garai hartatik, Jerusalem garapena zaindu duten arkitekto eta plangileek hiriari "estilo nazionala" eman nahi izan diote esku batekin eta bestearekin 67ko oreka demografikoa betikotu: hiru judurentzako palestinar bat.

1993an hiriaren plan nagusiaren arduradun Elinoar Barzacchik publikoki aitortu zuen hirigintzaren helburua izan behar zuela palestinarrek %28an atxikitzea eta juduak %72an. Helburua lortzeko, arkitekto eta plangileek beren armak erabiltzeko dituzte, eta Weismanen hitzetan, populazioaren derrigorrezko lekualdaraztea gerrako krimena baldin bada, politikari eta militarrenaz gain arduradun zibil horien ere gerra krimenez hartu behar da.

Palestinarrek juduek baino ume gehiago egiten dutenez, are urduria mugitu dira agintari juduak, gero eta neurri gogorragoak ezarriz.

Irizpide nagusi bi erabili dituzte planak egiterakoan. Bat, auzo juduetan etxegintza sustatu. Bi, auzo palestinarretan eraiketa oro galarazi. Ondorioz, 1967tik gaur arteko desorekekin palestinarrek 25.000 etxebizitzaren beharrean daude. 600.000 biztanle dituen Jerusalemenez ari gara.

Nonbait bizi behar eta, palestinar askok legez kanpo eraiki du etxea. Horrelako 18.000 badirela kalkulatu dute iturri batzuek. Gehienak auzo txiroenetan. Jerusalemgo udalak arrazionaltasun urbanistikoaren ize-nean horietako 500 eraitsi ditu 1987tik 2004a bitartean.

Natiboak urruntzeko taktika gehiago ere badira hirigintza plane-

tan. Juduen auzo berriak auzo palestinarren artean eraiki dira, horien arteko hesitzat gera daitezten betiko, biztanlego palestinarren eremu-jarraipena eteteko. Palestinarrek ezingo dute horrela komunitate gisan funtzionatu eta Jerusalemen bizitzea oso neketsu egingo zaie.

Jerusalemek Christopher R. Mattix-en argazkiak eskaintzen duen ikuspegia dotorea da eta merezi zuen osorik azaltzea. Aldiz, foto txikiak lekukotasunaren indarra darama bere baitan. International Middle East Media Center (IMEMC) guneak ekarri zuen joan den otsailaren 15ean. Albistean zioenez, bezperan Al Shalloudi palestinarrek Jerusalemen eraikia zeukan etxea berak suntsitu behar izan zuen, baimenik gabe jasoa izateagatik udalak ezarritako 130.000 shekeleko isuna (24.000 euro inguru) ordaindu ezin zuelako. Bost haurren aita den kamioilariak isun gogorraz gain 60 eguneko espetxealdia arriskatzeko zuten. Arazoa nolabait konpontzearen, bere kontu joan dira etxebizitza suntsitzeko makinak gastuak eta gainera 14.000 shekeleko isuna kitatu behar izan du.

tan. Juduen auzo berriak auzo palestinarren artean eraiki dira, horien arteko hesitzat gera daitezten betiko, biztanlego palestinarren eremu-jarraipena eteteko. Palestinarrek ezingo dute horrela komunitate gisan funtzionatu eta Jerusalemen bizitzea oso neketsu egingo zaie.

Hirigintza arma da

Etxebizitza faltan, eta eraikitzeko baimen urritasunak lurzoruak izugarri garestitu dituelako, milaka palestinarrek Jerusalemetik kanpo joan behar izan du bizileku bila. Baina hiritik alde egiten dutenek Jerusalem darizateari uzten diote, lanerako bezala eguneroko mila afe-retarako oztopo askoz handiagoak dauzkaten Zisjordaniako palestinarren sailera eroriz. 50.000 palestinarrek galdu omen du Jerusalem estatua azken lau hamarkadotan.

Palestinarren itotzeko hirigintzazko trikimailu haboro bada. Adibidez, zein eremu gordetzen da eraiki ezineko espazio publikotarako? Palestinarrek bizi diren auzo inguruetan eraikitzeko balioko lukeen zoruaren %40 horrela utzi da hutsik; teoriarik auzotarren bizi kalitatea bermatzeko, praktikan lehendik pilatuta bizi diren kaleetara kondentatzeko.

Ez pentsa gune libreak menperatze kolonialerako erabiltze hori Eyal Weizmani gau bateko ames-



gaiztoan bururatu zaionik. 1965etik 1993ra bitartean Jerusalemgo alkate izan zen Teddy Kolleck-en aitormen hau bildu du Weizmanek: “Shu’fat tontorra [garai hartan muino soila, izen hortako auzo palestinarren aldamenen] berdegunetzat atxikitzearen lehenengo helburua izan da arabiarrei han eraikitzea eragozte, auzo judu berri bat eraikitzeko eguna iritsi bitartean”.

Bizilekuen dentsitatearekin ere jokatu dute Jerusalem etnien arabera birmoldatzeko helburua zutenek. Auzo palestinarrei teoriako babes maila zorrotzagoa ezarri zaie, batzuetan gune historiko preziatuak omen direlakoan eta bestetan nekariztzako eremu atxikitzekotan.

Total, dentsitate gutxiko eraikuntzak besterik ez dela baimentzen haietan.

Horrela, Talpiot-Mizrah auzo juduan bost solairutaraino etxeak eraiki daitezkeen bitartean, aldamenen dagoen Jabal al Mukaber auzo palestinarrean etxe batek eraikitzeko baimena duen lurzorua %25 hartu dezake, etxe txiki bakarra.

Palestinar jendea bizi diren auzo-tegiak mugatuta daude bai alboetatik, berdegunez, eta bai gainetik, balizko babes neurriengatik. “Eta azkenean –dio Eyal Weizmanek– auzo horik bihurtu dira artxipelago bat juduen eraikuntza den ozeanoaren erdian ‘autentikotasuna’ omen duten ugartez osatua. Auzo horien

arkitekturari funtzio hau eman zaio, hormigoiz eraiki baina harriz apaindutako etxadi juduetatik objektu estetikitzat begiztatua izatea. Parke inguratuta dauden ‘zonalde babestu’ horiek 1918ko McLean plana indartzen dute eta hiriburu mailan errepikatzen dute Zisjordaniako *bantustanak*, palestinarrentzako osatu direnak”.

William McLean ingeniari eskoziarrak ospe handia izan zuen inperiario ingelesean. Orduan britainiarrena zen Sudango hiriburu Khartum berak berrantolatu zuen, bertan jende zuria erosoago bizi zedin. Hortik Egiptora eramán zuten Londresko agintariek, eta artean Israelik ez zeukan Palestina handia britainiarren protektoratua zenez, McLeani eman zioten Jerusalem antolatzeke lana.

Teorian, 1918ko lehen plan orokorrearekin McLeaneke Jerusalem hiri historikotzat babestu behar zuen, baina helburu hori eta juduen eta arabiarren arteko elkar bizitzea uztartu behar zituen paraje hartan, juduek lurraldea osatzeko eskubidea zutela zioen Balfour deklarazioa ezarri, guztia sionisten babeslea zen Sir Herbert Samuel britainiar komisionatuaren oniritziarekin.

Irakurle gazteak jakin behar du Hego Afrikako gobernu arrazistak *apartheid* garaian sasi-autonomiaz moztortutako *bantustan* izeneko eremuetan metatu zituela jende beltzak, zurietatik bereizi eta hobeto menperatzeko. Eta Israel izan zela Pretoriako gobernu arrazista haren aliatu bakarretakoa. ■


**ZINKUNEGI
OPTIKA**
 Hernani, 23 · 20004 Donostia
 T. 943 420 624
zinkunegi@euskalnet.net
zuri begira